### AGLOMERACION CÒSTA BASCO-ADOR

# UN RÒTLE DE CAPDULH ECONOMIC

**Un portrèit economic deu País basco e deus sons territòris, deu lo de l'Aglomeracion Còsta Basco-Ador, compausat de Baiona, Anglet, Biàrritz, Bidart e lo Bocau qu'ei estat publicat per la crampa de comèrci e d'industria Baiona-País basco. Aqueth estudi qu'analisa l'activitat economica en 2010.**

Purmèr ensenhament : que denombran, dens lo territòri de l'Aglomeracion en 2010, 14915 establiments (en pujada de 6,6 % en comparèr a 2009) e 66 662 emplecs en pujada de 0,7 % (honts : INSEE-SIRÈNE 2009 e 2010), tà 35 054 establiments e 126 563 emplecs dens lo País basco. L'Aglomeracion qu'amassa 42,5 % d'aqueths establiments e 52,7 % deus emplecs suu son territòri.




## REPARTICION 2010 DEUS ESTABLIMENTS




Los establimenrs son despartits dens los servicis (62 %), lo comèrci (19 %), la contruccion (8 %), lo torisme (7%) e l'industria (4 %). La tendéncia que's confirma en tèrmis d'emplecs dab 62 % dens los sevicis, 17 % dens lo comèrci e 7 % dens la construccion, lo torisme e l'industria.

Las activitats qui concéntran lo mei d'emplecs son la santat umana e l'accion sociala dab 11 652 emplecs e 1832 establiments ; lo comèrci dab especiaument la reparacion auto-moto : 11 629 emplecs e 2 915 establiments ; l'administracion publica : 5 250 emplecs e 116 establiments ; l'industria manufacturèra : 4 831 emplecs e 649 enterpresas, l'aubèrgament e la restauracion 4 700 emplecs e 1023 establiments, construccion : 4532 emplecs e 1261 establiments, etc...

### 3 QUESTIONS À ...

## ANDRÈU GARRETA

### PRESIDENT DE LA CCI BAIONA- PAÍS BASCO

**Quaus son los principaus ensenhaments d'aqueth estudi ?**

L'Aglomeracion Còsta Basco-Ador joga lo ròtle de vertadèr capdulh economic tà son territòri.
Que concentra 52,7% deus emplecs deu País basco. Sus un punt de vista quantitatiu, qu'observan que l'Aglomeracion endòsta l'essenciau deus emplecs ligats a las cinc foncions metropolitanas (segon l'INSEE) : comèrci enter entrepresas (59,5 %), concepcion-resèrca (64,2%) cultura-lesers (60,5 %) prestacions intellectuaus (67,7 %) e gestion (64,6 %).

**Quau ei la tipologia de l'éconoimia ?**

L'Aglomeracion n'a pas escapat a la terciarisacion de l'economia. Los emplecs deu comèrci e deus servicis qu'aucupan 86 % deus emplecs. A notar la feblessa deus emplecs industriaus inferiors de cinc punts de la mejana deu País basco. Quan analisan l'evolucion deus emplecs sus un long periòde (qu'ei a díser 1982- 2007) que's ved que l'Aglomeracion qu'a coneishut ua aumentacion de 40,5 % contra 34 % tau País basco e 26,4 % tà l'Aquitània. Las foncions qui an coneishut la mei grana aumentacion que son lo terciari superior, la santat e l'accion sociala, la cultura e los lesers.

**Quau ei la vision vòsta deu desvolopament economic ?**

Qu'ei de compte har tau Pais basco d'aver ua aglomeracion qui jòga son ròtle de metropòli. Qu'ei un factor de desvolopament tà l'ensemble deu territòri. En efèit, ua metropòli qu'auhereish servicis diversificats e ponchuts qui non tròban pas dens las granas vilas. Ua metropòli qu'ei tanben un marcat de cosumiment e un factor d'atractivitat tà activitats navèras qui s'implantan sus l'ensemble deu territòri. Tirat per l'aglomeracion, lo desvolopament economic que deu ha's sus l'ensemble deu País basco dens un chepic d'amenatjament deu territòri. Ua aglomeracion hòrta e un territòri dinamic, tau ei la vision deu desvolopament economic de la nosta CCI qui inspira los projèctes nostes. Noste pletèi en favor de l'activitat industriau e la realisacion de zònas d'activitats dedicadas, l'accent dat sus innovacions a truvèrs noste campus tecnologic ESTIA, lo pòrt de Baiona qui deu arrelhevar dus desfís, lo de l'integracion soa dens la vila e lo deu carrèi intermodau, son autant d'orientacions qui fóndan l'estrategia nosta de desvolopament economic.

**AC SAVETZ ?**
En 10 ans, lo pòle implantacion de la CCI qu'a contribuit a l'installacion d'un centenat d'enterpresas creatoras de quitament 1800 emplecs.
**www.bayonne.cci.fr**

## 2 285 CREACIONS D' ENTERPRESAS

2 285 creacions d'enterpresas son estadas enregistradas en 2010 dont 36% d'auto-entreprenedors, despartidas com segueish : servicis 62%, comèrci 18%, construccion 11%, torisme 6%, e industria 3%.L'evolucion d'aqueras creacions enter 2009 e 2010 qu'avesia los 8,6 %. Lo taus de perenitat de las enterpresas a tres ans qu'ei de 70%.

## UA EVOLUCION DEUS EMPLECS

L'evolucion deus emplecs per foncion enter 1982 e 2007 qu'ei de + 40,5% dens l'aglo. La pujada estant mercada dens la concepcion e la resèrca, la cultura e los lesers e las prestacions intellectuaus, seguits per la santat, l'accion sociala e los servicis de proximitat tanben com l'administracion publica.

## LA SANTAT QU'A LA QUÒTA

Lo maine de la santat e deu sociau qu'ei hòrtament representat dab 11 652 emplecs. Lo centre espitalèr de la Còsta basco qu'ei lo mei important emplegaire dab 2500 salariats. En plea restauracion, l'espitau navèra generacion que sera fin prèst en 2014. La medisha annada, un pòle privat de quate clinicas portat per Capio s'obrira suu siti deu Prissé a Baiona. Un milèr de salariats, quitament seran amassats ;

## LOS PRINCIPAUS EMPLEGAIRES PRIVATS

- Dassault aviacion a Anlet : 1017 emplecs.
- Capio Baiona (clinicas Lafourcada, Lafargue, Paulmy, Saint Etienne a Baiona : 645.
- SOCARA (carrefour) a Anglet : 542.
- ONET servicis a Baiona : 355.
- Policlinica d'Aguilera de Biàrritz : 280
- Distribucion Casino : 285.
- SO.CO.MIX (Hôtel du Palais) de Biàrritz : 280.
- Technoflex de Bidart : 274.
- Mar e montanha de Biàrritz : 267.
- Celsa França (ADA) a Bocau/ 258.
- Lionnesa de las Aigas- Anglet Biàrritz : 254
- ERDF Anglet- Baiona : 238.
- Veolia Transport- Aglomeracion de Baiona: 231.
- Casino Barrière de Biàrritz : 202.
- Galeries Lafayette- Baiona- Biàrritz : 197
- Etc…

## LA PARAULA A …

# KADER ADDA

### DIRECTOR DEU PÒLE EMPLEC DE BAIONA

*« Lo taus de caumatge qu'avesia 8,7% en País basco en deçà de la mejana nacionau de 9,3%. Qu'ei quitament lo medish sus lo territòri de l'aglomeracion qui concentra 80% deus demandaires »* indica Kader Adda, director deu pòle emplec de Baiona. En març 2011 lo territòri de l'Aglo amassava 9562 demandaires d'emplec en categoria A-B C(1), en pujada de 6,1% sus un an. Per autant, la categoria A (demandaire d'emplec shens nat emplec) que s'estabiliza .
Aquera estabilizacion deu marcat de l'emplec (sentida a l'escala nacionau dempuish 2011) qu'ei totun connotada per ua preconizacion (recors aus CDD, aus temps- parciaus). Au demièi deus 9562 demandaires d'emplec (52% que son hemnas) la categoria la mei tocada qu'ei la deus caumaires de longa durada (inscriuts dempuish un an e mei) pr'amor deu nombre d'inscripcions enregistradas au som de la crisa. Seguéishen la part deus seniòrs (20%) e los joens de mensh de 25 ans(2) Que representan 25% deus demandaires d'emplec e presentan un taus de caumatge de 12%. Deu hèit d'aqueth constat lo plan d'accion botat en plaça per lo servici public (SPEL) e co-ordinat locaument per lo sos-prefet, s'emplega notaument a obrar en favor deu public de hemnas e seniòrs au caumatge dempuish mei d'un an. Auta data : mei de 8 500 auhèrtas d'emplecs son estadas depausadas en un an ( de mai 2010 a abriu 2011) dens l'aglomeracion. Que son en pujada de 5,3 %. 47% d'aqueras auhèrtas son emplecs duradis (+16% en un an). Que pertocan a l'ostaleria-restauracion ( deu hèit de la sasonalitat deu territòri), lo comèrci, la venta e la grana distribucion, los servicis a la persona e a la collectivitat, construccion, bastiment e tribalhs publics etc… ■

**www.pole-emploi.fr**

(1) Que s'agèish de categorias de demandaires d'emplecs tenguts de har actes positius de resèrca, estant shens emplec o en activitat amendrida ( mensh de 78 òras dens lo mes.(2) – 42% deus mensh de 25 ans en resèrca d'emplec qu'an un nivèu inferior o egau au CAP

## « L'ARTISANAT PREST A RELHEVAR LOS DESFÍS DE L'AVIÉNER »

**Sauveur Lagourgue, president de la Crampa deus mestièrs e de l'artisanat deus Pirenèus Atlantics qu'insista suu ròtle de l'artisanat dens l' aglomeracion nosta**

*« Lo noste departament que compte 12 021 enterpresas inscriutas au Repertòri deus mestièrs, las quaus son despartidas en quate sectors d'activitat : lo bastiment, l'alimentacion, los servicis e la produccion. 6000 son denombradas en País basco. Arron 1000 estudiants en aprentissatge seguéishen la cordèra artisanau. La purmèra enterpresa de França qu'ei rica de saber-har. Que sab s'adaptar e jogar la carta de la proximitat dens l'economia locau. La Crampa de mestièrs e de l'artisanat deus Pirenèus Atlantics qu'acompanha los mestieraus e futurs artisans. De la formacion au mestièr a la transmission d'enterpresa, en passant per l'installacion e lo desvolopament. Qu'a tanben vocacion a representar l'artisanat locau auprès deus poders publics. Autant de missions passionantas qui'ns perméten de dessenhar l'artisanat de doman. La futura universitat deus mestièrs qu'ajudarà a acontentar aquera ambicion. » (leger p.26).*

## EUSKAL KOSTA-ATURRI HIRIGUNEA,

# HIRI NAGUSI EKONOMIKO BATEN ZEREGINA

**Euskal Herriko eta haren lurraldeetako potreta ekonomikoa —besteak beste Baiona, Angelu, Biarritze, Bidarte eta Bokalek osatzen duten Euskal Kosta-Aturri Hirigune Elkargoarena- argitaratu du Baiona-Euskal Herria merkataritza eta industria ganbarak. Ikerketa honek 2010eko jarduera ekonomikoa aztertzen du.**

Lehen irakaspena: 2010ean, hirigunearen eremuan 14 915 lantegi daude (%6,6ko gorakada 2009ri konparatuz) eta 66 662 enplegu, oro har %0,7 gehiago (iturriak: INSEE-SIRENE 2009 eta 2010), 35 054 lantegi eta 126 563 enplegurako Euskal Herrian. Hirigunean biltzen dira lantegi hauen %42,5 eta enpleguen %52,7.




## LANTEGI BANAKETA 2010




Lantegiak zerbitzuetan (%62), merkataritzan (%19), eraikuntzan (%8), turismoan (%7) eta industrian (%4) banatuak dira. Tendentzia berretsia da enplegu mailan: % 62 zerbitzuetan, %17 merkataritzan, eta %7 eraikuntza, turismoa eta industrian.

Enplegu gehien biltzen dituzten jarduerak gizaki osagarria eta ekintza soziala dira 11 652 enplegu eta 1 832 lantegirekin; merkataritza auto-moto konponketarekin besteak beste: 11 629 enplegu eta 2 915 lantegi; administrazio publikoa: 5 250 enplegu eta 116 lantegi; manufaktura industria: 4 831 enplegu eta 649 enpresa, ostalaritza eta jatetxeak: 4 700 enplegu eta 1 023 lantegi, eraikuntza: 4 532 enplegu eta 1 261 lantegi etab.

## 3 GALDERA...

# ANDRÈ GARRETAri

### EUSKAL HERRI-BAIONAko MIG-ko LEHENDAKARIA

**Zoin dira ikerketa honen irakaspen nagusiak?**

Euskal Kosta-Aturri Hirigunea egiazko hiri-nagusi ekonomikoa da bere lurraldean. Euskal Herriko enpleguen %52,7 biltzen ditu. Kalitate mailan, behatzen dugu hiriguneak metropolitar bost zereginei lotuak diren enplegu gehienak aterbetzen dituela (INSEE-ren arabera): empresa arteko merkataritza (%59,5), sorkuntza-ikerkuntza (%64,2), kultura-aisialdiak (%60,5), prestazio intelektualak (%67,7) eta kudeaketa (%64,6).

**Zoin da ekonomiaren tipologia?**

Ekonomiaren tertzializazioak Hirigunea ere hunkitu du. Merkataritza eta zerbitzuen enpleguek, enpleguen osotasunaren %86 hartzen dute. Industriako enpleguen ahuleziaz ohartzen gara, Euskal Herriko batez bestekoarena baino bost puntuz apalagoa da. Enpleguen bilakaera epe luze batean aztertzen badugu (erran nahi baita 1982-2007), ikus dezakegu hiriguneak %40,5 emendatzea ezagutu duela, Euskal Herriarena %34 izan delarik eta Akitaniakoa %26,4. Emendatze azkarrena ezagutu duten zereginak tertziario nagusia, osagarria eta ekintza soziala, kultura eta aisialdiak... dira.

**Nolako ikuspegia duzu garapen ekonomikoaz?**

Garrantzitsua da Euskal Herriarentzat metropolia zeregina betetzen duen hirigune bat izatea. Lurralde osorako garapen ekonomiko eta sozial faktorea da. Alabaina, metropolia batek, hiri handietan bakarrik atzematen diren zerbitzu dibertsifikatu eta zorrotzak eskaintzen ditu. Hirigune bat gainera, kontsumitze merkatu bat eta lurralde osoan plantatzen diren jarduera berrietarako erakargarritasun faktorea da. Hiriguneak bultzaturik, garapen ekonomikoa Euskal Herri osoan eraman behar da, lurralde antolaketa helburu batekin. Hirigune azkar bat eta lurralde dinamiko bat, horra zoin den gure egitasmoak inspiratzen dituen gure MIG-aren ikuspegia. Industria erakargarritasuna eta eskaini jarduera guneen burutzearen aldeko mintzaldia, berrikuntza lehenestea ESTIA gure kanpus unibertsitarioaren bitartez, bi desafioei, hirian integratzea eta garraio intermodalarena, aurre egin behar dien Baionako portua, horra gure garapen ekonomiko estrategia osatzen dituzten norabideak.

**BA OTE DAKIZU?**

10 urtez, MIG-aren plantatze poloari esker, 1 800 enplegu inguruko ehun bat enpresa instalatu dira.

**www.bayonne.cci.fr**

## 2 285 ENPRESA SORTZE

2 285 enpresa sortze grabatuak izan dira 2010ean, hauetarik %36 autoenpresari gisa eta honela banatuak: zerbitzuak (%62°, merkataritza (%18), eraikuntza (%11), turismoa (%6) eta industria (%3). Sortze hauen bilakaera %8,6 ingurukoa izan da 2009 eta 2010 artean.
Enpresen bizikortasun tasa hiru urtera %70ekoa da.

## ENPLEGUEN BILAKAERA BAT

Empleguen bilakaera zereginka 1982 eta 2007 artean + % 40,5ekoa da hirigunean. Emendatzea markatua izanki sorkuntza eta ikerkuntzan, kultura eta aisialdietan eta intelektual prestazioetan, eta ondotik osagarria, ekintza soziala eta hurbileko zerbitzuetan bai eta administrazio publikoan

## OSAGARRIAK ARRAKASTA DU

Osagarria eta gizartearen arloa azkarki ordezkatua da 11 652 enplegurekin. Euskal kostako ospitale zentroa enplegatzaile nagusia da 2 500 langilerekin. Orain berregituratze betean den belaunaldi berriko ospitalea 2014an prest izanen da. Urte berean, Capiok eraman lau klinikako polo pribatu bat irekiko da Prissé-ko gunean Baionan. Milako bat soldatadun bilduko dira bertan.

## ENPLEGATZAILE PRIBATU NAGUSIAK

- Dassault Aviation Angelun: 1 017 enplegu;
- Capio Bayonne (Lafourcade, Lafargue, Paulmy, Saint-Étienne klinikak) Baionan: 645;
- SOGARA (Carrefour) Angelun: 542:
- Onet Services Baionan: 355;
- Agilerako poliklinika Biarritzen: 309;
- Distribution Casino: 285;
- SO.CO.MIX (Hôtel du Palais) Biarritzen: 280;
- Bidarteko Technoflex: 274; Biarritzeko Mer et Montagne: 267;
- Celsa France (ADA) Bokalen: 258;
- Lyonnaise des Eaux: Angelu-Biarritze: 254;
- ERDF Angelu-Baiona: 238;
- Véolia Transport / Baionako Hirigunea: 231;
- Biarritzeko Barrière Kasinoa: 202;
- Galeries Lafayette Baiona-Biarritzen: 197, etab.

## HITZA... KADER ADDAri
### BAIONAKO PÔLE EMPLOIKO ZUZENDARIA

*"Langabezia tasa %8,7 ingurukoa da Euskal Herrian, nazio mailako batez bestekoa baino apalagoa beraz, hura %9,3koa baita.Guti gorabehera berdina da eskatzaileen %80 biltzen dituen Hirigunean"*, dio Kader Adda, Baionako Pôle Emploi-ko zuzendariak.
2011ko martxoan, Hiriguneko lurraldeak A-B-C(1) kategorietako 9 562 enplegu eskatzaile biltzen zituen, %6,1eko emendatze batekin urte batez. Hala ere, A kategoria (neholako enplegurik ez duen enplegu eskatzailea) egonkortzen da.
Merkatua eta enpleguaren egonkortze hau –nazio mailan 2011ko hastapenetik sentitzen dena- prekarizazioarekin batera gertatu da (IMK, denbora partzial gehiago).
9 562 enplegu eskatzaileen artean -%52 emazteak dira-, kategoria hunkituena iraupen luzeko langabetuena da (urte bat edo gehiago) krisia bete-betean zelarik gertatu inskripzio kopurua dela eta..
Ondotik, seniorren partea (%20) eta 25 urte petiko gazteena (2). Enplegu eskatzaileen %25 ordezkatzen dute eta %12ko langabezia tasa osatzen dute. Egoera honen aitzinean, Enpleguaren zerbitzu publikoak (SPEL) plantan ezarri eta hemen suprefetak koordinatu ekintza plana, langabezia urtea gainditzen duten emazte seniorrei zaie bereziki zuzentzen.
Beste datu bat: 8 500 lan eskaintza baino gehiago pausatuak izan dira urte batez (2011ko maiatzetik 2011ko apirilera) hirigunean. %5,3z emendatu dira. Eskaintza hauen %47 enplegu iraunkorrak dira (+%16 urte batez). Ostalaritza-jatetxe (lurraldearen sasoialitate azkarra dela eta)-komertzioa, salmenta eta banaketa handia; pertsonari eta kolektibitateari zerbitzuak ; eraikuntza eta obra publikoak, etab. hunkitzen dituzte.

**www.pole-emploi.fr**

(1) A-B-C kategoriak dira: enplegurik gabe edo jarduera murriztuan (78 oren baino gutiago hilabetean) izanki bilatze egintza positiboak egin behar dituzten enplegu eskatzaileak. (2) enplegu bat xerkatzen duten 25 urte petikoen %42 CAP heineko maila edo apalagoa dute.

## « ARTISAUTZA ETORKIZUNAREN DESAFIOEI AURRE EGITEKO PREST »

**Sauveur LAGOURGUE, Pirinio Atlantikoetako ofizialeen ganbarako lehendakariak artisautzak gure hirigunean duen garrantzia azpimarratzen du.**

*"Gure departamenduak 12 021 enpresa dauzka lanbideen Errepertorioan sartuak, eta hauek lau jarduera arlotan banatuak dira: eraikuntza, elikadura, zerbitzuak eta produkzioa. 6 000 kontatzen dira Euskal Herrian. 1 000 ikastun inguruk segitzen dute artisautza sarea. Frantziako lehen enpresak egiten-jakite handia du. Badaki egokitzen eta hurbiltasunaren zeregina betetzen tokiko ekonomian. Pirinio Atlantikoetako Ofizialeen ganbarak ofizialeak eta geroko ofizialeak laguntzen ditu. Formakuntzatik lanbidera, enpresa transmisiora, plantan jartzea eta garapenetik pasatuz. Tokiko ofizialeak botere publikoen aitzinean ordezkatzea ere du xede. Hainbeste betebehar lilluragarri biharko artisautza marrazten laguntzeko. Egitekotan den lanbideen unibertsitateak lagunduko gaitu xede horren betetzen. (irakur 26. Or)."*